

# Fábulas en Dialecto Vizcaíno

(JARRAIPENA) (1)

---

## OGUETA SEIGARREN IPUÏÑA

*Ollar bi pelascatuac ta gudatuac, gueiago eguina ta azpiratua*

Ollar bic  
alcarri  
ekin eutsen gogorto:  
batac ta  
bestea  
zurrau evan galanto.  
Goitua  
gaishoa  
sartu zan ezcutuan;  
ganetsuc (sic)  
cucurruc  
eguin orma ganean  
Baya jah!  
sayea  
goitic etorri egaz,

t<sup>a</sup> arturic  
erpakin  
erôn evan beragaz  
Orduan  
leguian  
lotu zan aguintari.  
eroanez  
len auspez  
zuloan zarra yarri  
*Arroac*  
*be-yoac*  
*izango lurreraïño;*  
*umillac*  
*goratuac*  
*Fedeac alan diño.*

---

---

(1) Voir la *Revue*, tome I, p. 88 et 529.

## OGUETA ZAZPIGARREN IPUÏÑA

*Basauntz mats-orri-yalea*

Eiztariac basauntza  
 artuteracotz,  
 chacurraz atzean  
 arin darraicoz.  
 An tzan lasterra,  
 ta chacurraz lau-oinca  
 basauntzac ega.  
 Gueure berna arimac  
 aurre-bidea  
 artu deutse chacurrai,  
 baita lucea  
 et<sup>a</sup> azkenean  
 ostendu yak<sup>o</sup> ederto  
 mats-orri-pean.  
 Bildurraz eraguinda,  
 an gueldi gueldi  
 dago ezcutadua  
 or ordu erdi:  
 bait<sup>a</sup> ain ishilic.  
 Ce ez ots bat eguin dau,  
 ezta cirkinic.  
 Bildurra yoan, eta  
 dacus orria:  
 kili eguiten deutso  
 kili bicia.  
 Andic sabelac  
 dirautso: «¡Ey! ecazac  
 orrac<sup>o</sup> orbelac»  
 Kili ta kili guero  
 deutso ekiten  
 mats oriai bein bañan:  
 ezta guelditzen.

Ta gueroago  
 dator bina yatera  
 edo gueiago.  
 Arerioak, diño,  
 yôn yoiac ortic:  
 eztoc aen usañic,  
 eta ez otsic.  
 Yan ta yan bada:  
 bildurraz doc aldia,  
 doc bere yanac».  
 Orrien ibiltetic  
 guizon arguiac  
 gordeari igarten  
 deutse lokia.  
 Arin bai arin  
 anche dira guztia  
 chacur t<sup>a</sup> armakin.  
 Chacur zauncac mats-tarra  
 dave ushatu:  
 eiztariac su eguin,  
 ta lurreratu.  
 Agur basauntza  
 Emengoa eguinda  
 plaust, besterantza.  
 An da esker char batec  
 oi dacarrena:  
 caltea calte gane  
 nosbait atzena.  
 ¿Il az, patari?  
 ei euntsan ic parcatu  
 mats onguillari.

## OGUETA ZORTZIGARREN IPUIÑA

*Basurde garaun-bagacoa*

Baserritar bateri basaurdeac  
 eguiten eutsan bere soloetan  
 calte asochu gari-artoetan.  
 ta guero, trasca, igues abereac  
 ¿Cer? diño: ¿ez al aut artuco,  
 eta nos edo nos escupêtuco?  
 Etorri yoacon gau minez sarri,  
 ta baten escuac deutzaz ezarri,  
 iminten davela zorionean  
 charra bere mendean.

Ebaïten deutso ezker belarria,  
 eguiteco alan ezaugarria,  
 ta isten deutso yoaten basora.  
 elduco etzalacoan solora.

A, osatu yacanean zauria,  
 ezpeucan bere lengo belarria.  
 yazo yacanagaz ia azturic,  
 dacus yaveac soloan sarturic.  
 Baya zaratea asmau, t<sup>a</sup> arinea.  
 iguesten dau laur-oinca.

Beste gavean dago zorotziten  
 ta dantzu artoac lurrera guiten

2 belarri bacochoa toa marra marra,  
 (sic) 1 celan zaldi-mandoac garagarra:

eta apurtuten ortz-aguinetan  
 biurtu-guiñocoan urunetan.  
 Baserritar gaisho calte artuac.  
 egozten deutzaz osteria escuac,  
 ta ebaïten belarri escoicoa.

«Belarri motz, eurt: on»  
 Guirrintzaca doa bere basora,  
 odola criola, ya solora  
 ez gueiago etorteco gogoaz.

«¿Cegaitic, diño, donga, yoan agoaz  
 calteac eguitera basterretan?»

¿Ez doc arte-ezcur, ta lur-arbietan  
cegaz ire gose<sup>a</sup> ase ugari?

¿Cetàco baserritar gaishoari  
galdu euc bere lan-icerdia,  
urteco yanaria?»

Osatu zan belarri motzecoa,  
ta kilica eucan lengo soloa.  
«¡Eh! Banayoac, diño; noc arina,  
chacurraz burrucatzea eguina.

Ez bada, ene burua, larriric:  
yateco bear ez doc belarriric.»

Boa gueldi gueldi solo maitera  
entzun-bidea zur dauco echera,  
otsic ete danez ango atean,  
ez bazan, bitartean

artoz asetuteco atseguinez,  
ez bildur aciz, ez icara minez.

Baserritarra orduco soloan  
mutilacaz celataca egoan :  
eta, traupa<sub>r</sub> bertan dau atrapetan,  
eta locarriacaz catiguetan.

Gurrinca baltzac ordu ain estuan  
eskintz ederrac eguiten cituan.

Entzuteri, ez, ez yaco ematen  
bai aserrez esaten:

«¡Ah goapo, calte-guilla gaistoa!  
¿cegaitic izan az omen eroa?

Encusan nire oneguitasuna:  
nic bere bai eure gaistotasuna.

Ez yagoc iretzat pareaciñoric,  
ez bicia euri isteco gogoric.

Irugarrenez ene escuetan  
yausi az: ta burdina sayetzetan  
izango doc: ta ilten dave beingoan:  
t<sup>a</sup> artu pocic lepoan

mutilac echera eroateco  
ta auzoetan barriac emoteco.

Eguna orduco biaraumean  
imini urdea zaldiganean

t<sup>a</sup> artzen dituc burni zulotuac  
su auts-chu galantagaz prestatuac.

Abietan da su-taunpa gogorra,  
 irartzartu leiana ordi concorra.  
 Trast, trast, trast emen: plaust, plaust,  
 plaust bestean.  
 su<sup>a</sup>aldean aldean.

«¿Cer doc au? » diñoce errico mutilac,  
 atso-agura t<sup>a</sup>umechu sotilac.

Asten dira barriro su plaustadac,  
 ta yagui or-emen ke-lañocadac.

Dator guero lagundia urira,  
 caletarrac guztiac anche dira.

Andic doaz andiki baterena  
 ordotsagaz eskintza eguitera  
 t<sup>a</sup>¡ay! ez davela belarri apurric  
 dacuste arrituric.

Batuten da ara guizon-teguia  
 ateraten yake zaraguia.

¡An bai zala atseguin atseguina!  
 ardaoagaz onretan calteguina.

Ebat' eutse zarra zarra burua:  
 yente guztia dago sor-gortua,  
 ez evalaco garaunic arean:

ta ez etozan alcarren artean  
 cein ete zan aren erabagina,  
 guzurra al<sup>a</sup>eguia.

«Ez gazteac, ez arren icaratu»  
 dacutsuenagaz ez sor-gueratu:  
 diño bertan batec asco yakinic,  
 ta ipuiña eguia uts eguinic:

«¿Celan euki garaunen ispiric,  
 onec, galdu davezan belarri bic  
 centzatu ez, ta badoa solora  
 ecarri бага lengoa gogora?»

*Castiguac onduten eztavena  
 garaunik eztaukena.*

---

## OGUETA BEDERATZIGARREN IPUIÑA

*Il baten ganeco ama-aizteen negarrac, ta erostarienac.*

Ama bateri  
alaba bat  
il eguin yacan  
gaishoagaz.  
Erostariac,  
oi dan leguez  
negar eguiten  
badacardez.  
Lau andra dira  
ta iletac  
eguiten davez,  
ta galantac.  
Beste alaba  
ilen aiztac  
icaraturic,  
diño: «Ama»,  
«¿celan elduoc  
negar ecin :  
t<sup>o</sup> ¿aldau atzeac  
ainbeste eguin?

Dirautso amac  
«¿Ay, alaba!  
bien negarrac  
eztozan bat.  
«Gureac ditun  
biotzetic:  
baita cindoac  
orregaitic.»  
Orren erostac  
azal utsac:  
ta beragaitic  
gauza ezac.»  
*Nai guizonacaz  
nai Yaincoaz  
ceuc biotzetic  
eguin gauzac.  
Campo ederra  
biotz бага  
da bitzuentzat  
gauz ustela.*

## OGUETA AMARGARREN IPUIÑA

*Auñã ondo azia ta ostoz galtzallea.*

Auntz bat doa basora  
aumechua itzirik  
cortan ondo gorderic  
uzten ez din canpora.  
«Biotz (amac) ez urten  
neu biurto artean.  
Iñor bada artean  
oles, ao eguiten,  
«Ez idigui beingoan.

Ago, gaisho, zururric,  
ta beguiac zabalic  
ea ni ete noan.»  
Zorozten dag<sup>o</sup> otsoa  
berboc ceatz entzuten;  
evan baya larritzen  
yan bearrac gaistoa.  
Diño: «El aumekia  
gozoa ta samurra:

bear yoat guzurra  
yateco guiberria.»  
Gueldi gueldi atera  
auntz amaren soñuaz  
dator, adi gaistoaz  
ortz artean artzera.  
Aumeac dau gogoan  
amaren esan ona  
ondo guraz emona  
basoraco zanean.  
Ta olen idiguitic  
ac eguinic beguiac,  
daracutso arguiac

sasiaren osteitic  
otso tzar salobrea.  
Et<sup>a</sup> atzen emonic  
dirautsa: «ken, ken ortic:  
bayazauat tresnea.»  
Umea gurasoac  
Yaunaren bildurrean  
aci balen: ac berlan  
igarrita, gaistoac  
ushatuco lituke.  
Gurasoen errua  
izan doa, bestera  
umec eguin baleike.

## IPUIN BERA BESTERA ALDATUTA

*A ume esan-onecoa ta otso gaistoa*

Auntz bat bayoan basora  
acumea cortan itzirik,  
chit<sup>o</sup> ondo eracutsiric  
ez urteteco canpora.  
«Laztan, dirautsa, ez urten  
neu nayatorren artean:  
ta norbait badoc atean  
oles, pitica, eguiten.»  
«Ez euc idigui beingoan.  
Ago, chinch, iratzarrirric  
la beguiac idiguiric,  
ni au ete nayagoan.»  
Dago celata otsoa  
esan eutsana entzuten  
baya goseac estuten  
evan irrime gaistoa.  
«Ay, ay! sume-araguia  
diño ¡ce gozo samurra!  
Baya bear doc guzurra  
neuretzeco guiberria!  
Doa ishilic atera  
auntz amaren soñuagaz

asmu gaistoz artuagaz,  
onetan arrapetara.  
Aume zurrac dau gogoan  
amaren esan ain ona  
asco gurata emcona  
basoraco zan ondoan.  
T<sup>a</sup> atearren cirritutic  
eguiten ditu beguiac  
nor daracutsan arguiac,  
eta dacus ezcututic.  
Arerio tzar otsoa,  
eta ez ama maitea.  
«¡O malmutz goseberea!  
Ta ¡zein azan i gaistoa!»  
Alan dirautsa cortatic,  
sume onec otsoari.  
¿Cer ipuiñac gazteari?  
Entzun, entzun berpertatic.  
Artu beitekez gogoan  
zar yakinen esan onac  
calte-artuac emonac  
t'ez itzi iñosh alboan.

## OGUETA AMAICAGARREN IPUIÑA

*Chacur-eta adiskideac*

¿Chacur-catuac, noc sinistu?  
 egozan bein erretillu baten.  
 alcarren bakean yaten,  
 ta etzirean ecer kiskitu.  
 Etseco yauna bertatic  
 auzocoai esateco cegaitic,  
 deituric asten yake esaten:  
 «Ta ¿ez dozuez icusten  
 arenio bi baketuric,

eta mai baten alcaturic?  
 Chacur-catuac, ta ¿adiskide,  
 balira legueche senide?»  
 ¿Cer eguin ez leike ecanduac,  
 eta gauza batera oituac?  
 Beaztuna bere eztitu:  
 guizon sutsua otzitu:  
 aserre-erraza bigundu:  
 okerreña bere zucendu.

## OGUETA AMABIGARREN IPUIÑA

*Arrantzallea ta chibi bacarra*

Arrantzalleac bot'evan sarea  
 biar dan-dana arrañez betea  
 egongo zalacoan:  
 loric bere ein ecinic egoan.  
 Yagui zan goshean goshetic  
 nagui andi bagaric oetic,  
 ta doa yasotera  
 ceinbat artu evan icustera.  
 Dacus baya damuz beleric  
 etzacola yausi besteric,  
 ezpada chibia bacarra.  
 An tzan ernegua t<sup>a</sup> an deadarra  
 eta an esaten:  
 «¿onetaco ezarri yoat sarea?  
 ¿chibia bategaitic gava galdu,  
 ta pozen zoroz ecer ez afaldu?  
 Noan guzti au nayaroiála loac;  
 ta sabela ilten yan bacoac?  
 ¡Semearen galdua!  
 ¡Necatuen artean necatua!

Onelan egoala erneguetan,  
 biraoz bazterrac betetan,  
 esaten deutso icaraz chibiác:  
 «Guizon ona, ken niri ariac.  
 Ichaso-bidea emon guidazu:  
 nosbait nos damutuco etzazu.  
 Egingo naz chibi eskerguea:  
 botaco dozu barriro sarea.  
 ichaso basterrera:  
 etorrico natzatzu sarera  
 andi, mardo, guicenduric,  
 ez deutsut sartuco guzurric.  
 Chibia bat ¿ce izacaria!  
 ¿Celan zuc nigaz afaria  
 eguingo dozu gaur gavean?  
 ¿Ez dozu obe datorren urtean  
 neure yabe izate,  
 t<sup>a</sup> apari galant bat eguitea?  
 Etorrico natzatzu lagunacaz:  
 ceuc orduan arañacaz

ateraco dozu diru andia:  
 ta esaugôzu: ¡Ay chibia  
 eguia-zale ta berbacoa!  
 Sinist' ezteutsuna da eroa.  
 Sinistu neuntsun ordu onean:  
 imini nozu gaur egun obean.»  
 Bai ¿euri sinistu nic?  
 ez doc icusico beste egunic.  
 Obe doc arrain chiki hal escuan  
 batea baño, au ascatuan

bayabile batera bestera.  
 Ator eu orain ene echera.  
 ¿Nosh gueroco oguiac, nosh gosea  
 kenduco doc? Eta nosh aseá  
 itzi sabel argat macaldua?  
 Burduntzira, cital galdua.»  
 Asco t<sup>a</sup> asco izangoac  
 ecer бага itzi dituz:  
 escucoari eutsi zuc  
 badau cerbait oraingoac.

## OGUETA AMAIRUGARREN IPUIÑA

*Ilteco egoan gurasoaren burubide ona ta ume cintzoro bearguillac*

Ilteco etsita ya egoan  
 guraso batec, umeac  
 aurrera ecarri, ta ondoan  
 dirautsez orango berbac  
 «Ene semeac  
 guztiz maiteac  
 nic laster il bear yoat.  
 Ia niretzat ez dozac ecer  
 mundu onetaco gauzac:  
 zuentzat orche, bai eta laster  
 ichico yoadaz danac  
 orche basterra,  
 eche ederra,  
 eta mastui gatantac.»  
 Baya ez ñeukek nic yoan gura  
 ceuei au esan bagaric,  
 onen mastuitan zaintsu achurra  
 erabilita zaconduric,  
 catanarrua,  
 bean sartua,  
 topacòzue beteric.»  
 Andic, guraso au il ezkeru,  
 aren esanen ganera  
 semeac lana bero bai bero  
 eguiten abiau dira:

mastui<sup>a</sup> achurtu,  
 soyac apurtu.  
 t<sup>a</sup> azpico lurrac ganera.  
 Catanarrua etzan aguertu,  
 ez eta beste diruric;  
 baya mastuiac atan achurtu,  
 eta mats-mordaz beteric,  
 euren saria  
 irabazia  
 gonburu deuts<sup>c</sup> ecarriric,  
 Ganezca bada upakerea  
 bete dave chacolinez:  
 ta batzuc edan, saldu bestea,  
 contuac yola, azkenez  
 seme bacoachac  
 dituzan boltzac.  
 bete dituz urre onez.  
 Dirautse bada bat besteari:  
 «¿Ce catanarru oberic?  
 Nonbait aiteac au iragarri  
 nai yeuscuan ez besteric.»  
 Ea guizonac  
 lan on zaconac  
 oneshegaz aberatsic.

## OGUETA AMALAU GARREN IPUIÑA (1)

*Isopo agurea yolastuten ta olguetan.*

Isopo chinchilan  
ebilen poz pozez  
mutilen artean  
mutil balitz leguez.  
Aurreco guztiac  
dagoz an barreca  
zar bat mutil icusita.  
Agure yakinac:  
«Gazteac, dirautse,  
¿Ceri zuec barre  
eguin deutzazue  
Nonbait ni chinchilan  
nacutuselaco  
ta ume guinic Isopo.

«¡Ah zoroac betor  
saguita-arcua.  
Ara emen, ta esan,  
cegaitic cordela  
onen nasai daucan?  
Gauza eztlaco  
beti au tiran badago».  
Galdu eguingo da  
guizona ta belan  
beti badiñardu  
gogor bearrean.  
Nasaitu beiteke  
tingui bat aldian  
osasuna izan daian.

## OGUETE AMABOST GARREN IPUINTZAT

*Peru achulari alperragaz Yoane necazale cintzoaren arteco berbaicuntzea.*

*Peruc.* Ez daucat gogo onic  
aurtengo urtean  
pozagaz cantetaco  
suaren aurrean:  
coltzan artoric ez, ta  
guelia auxoan,  
coipe asco ez dago  
gueure lapicoan.  
Ibilib bearco dau.  
bai. gure atsoac  
uritic ecarteco  
tremer ta artoac.

Baya ¿dirua non da?  
(or dago ultzea)  
saldu bearco dogu  
daucagun guztia.  
Galicia-tic dator  
sardina gazia  
guere lauco apurren  
eroan-garria.  
Urac ez deuscu ilgo  
aren egarria  
¿cegaz erosicôgu  
chacolin barria?

(1) El autor escribió este cuento después del 35º, pero numerándolos como aparecen aquí.

Ondo otza nic daucat (*sic*)

ucha kisketea  
 ez asko beroago  
 cizcuco poltsea:  
 idi macar bi dagoz  
 gueure ocelluan  
 saldu bearco ditut  
 aurtengo neguan.  
 Beti yagot alboan  
 Maria gueurea  
 negarraren soñuan  
 yoten iletea:  
 ardaoa ta pipea  
 itzi daidazala.  
 Lenago itcico dot  
 daucadan azala.  
 Ugazaba yaunari  
 neuc esango deutsal  
 igazco errentea  
 itzi parcatutzat.  
 Aurten yausi yatana  
 abustu ostein  
 pagauco deutsalada  
 diru ederrean,

*Yoanec.* ¡Ay Peni, Peni! zara

zu beti alperra:  
 sarri izango dozu  
 alcandara zarra:  
 belauna aguirian  
 prakeen zulotic,  
 adurrata mocoac  
 ocotz ingurutic.  
 Sistiriña dariozu  
 ucondoetatic,  
 chapelaren atala  
 belarri ondotic:  
 alcondara barriric  
 ez yatzu icusten  
 goruric ceure echean  
 ez dave eguiten.  
 Nic echean daucadaz

cecin ta urdaia  
 artoric ezpadago  
 yango dot oguia.  
 Ene troshac daucadaz  
 gariz beteturic,  
 urte barru onetan  
 ez daucat goseric.  
 Echean aci beti  
 bigae mardoac,  
 guero euki daiezan  
 beteric erroac.  
 Eznechu gozoagaz  
 ¡ay ce edariá!  
 esan leiteke bada  
 cerutic yatzia.  
 Echean acirico  
 cecorchu ederrac  
 eguin oi daroadez  
 soloco bearrac.  
 Ez deutset Montañarrai  
 diruric emoten:  
 mercaturic mercatu  
 ez naz neu ibilten.  
 Zuc bere bacenduke  
 eguingo bearra,  
 eta ondo necatu  
 garrico azurra,  
 ez eldu ños-bere  
 ardan-tokietan  
 dirua baceuncake  
 esturasunetan.

*Peruc.* ¡Ay, Yoane, erraz da  
 contuoc esaten;  
 baya nic eztot errez  
 diñozuna guiten.  
 ¿Celan euki guinaike  
 ainbeste ganadu,  
 biri cer yaten emon  
 ozta badaucagu?  
 Uda-barrian artu,  
 neguraco saldu:

bitartean bidetan  
 etenten ditugu.  
 Irabazten doguna  
 lenaz dago yanic;  
 ez dogu guc urtengo  
 bici onetatic.

*Yoanec.* Euki ezkeru, Peru,  
 daucazun basterra,  
 zuc bere artu ciñai  
 laborre ederra:  
 naboa ta berarra  
 ganaduentzaco,  
 (mea, t<sup>a</sup> araguaia  
 yat-orduetaco.  
 Ichi ibiltuari  
 beti carrioan:  
 bearra eguin zoli  
 eheco soloan.  
 Ez dau lurrac emoten  
 berez ondasunic,  
 achur ta layeagaz  
 eraguin bagaric.  
 Pipa moch<sup>a</sup> aotzean,  
 chapela okerric,  
 ceure zopila zarrac  
 arrastan ecinic  
 beti zabiltz bidetan  
 guelditu bagaric:  
 alan izan ecingo  
 arto ez gariric.  
 Aldatu bear dozu  
 bici-modu ori  
 benetan gura bozu  
 ondasunac euki:  
 seme-alabei bere  
 lanén eracutsi:  
 eta bildur onean  
 familia aci.  
 Ez daiela icasi  
 lapurkeriaric:  
 ezta bere esaten  
 iños berba charric.  
 Ez yaietan goten

taberuan sarturic  
 yocoan, edanean,  
 ta guero moscorric.  
 Kendu aldebaterra  
 biotz-gorrotoac:  
 gogotic maite izan  
 lagun ta auzoac.  
 Yaunaren aguindua  
 da parcatutea:  
 gorrotoac oi dacar  
 an-emen caltea.  
 Gazte gaztechutatic  
 beti eleshara,  
 ceuen abadearen  
 berbac entzutera:  
 ilean bein confesau  
 t<sup>a</sup> arimac garbitu:  
 bici-era on on bat  
 osoro yarraitu.  
 Zucen gabiltzan beti  
 Yaunaren bidean:  
 ta ez berba-lecuric  
 imini errian.  
 Alan eguin ezkeru  
 erbeste onetan,  
 orain ondo, ta guero  
 ondo ceruetan  
 Agur, Peru neurea,  
 urrengo artean,  
 alcar daigula icusi  
 datorren urtean,  
 ganbarea beteric  
 upea ganezca,  
 chalchu yaio parriac  
 atétan saltoca.  
 Jesus-en icenean  
 eroan nekeac,  
 alan irabazteco  
 atseguin beteac:  
 itzi gaurtic aurrera  
 taberna-zuloac,  
 eta ondo atondu  
 baso ta soloac.

## LIBURU ONEC DITUZAN GAUCEEN BARRI LABURRA

Berba-aurrecoa.  
 Anchinaco euscaldunen alabantzac.  
 Ipuñen aurreco yakin-bearra.

## IPUÑ ONAC

1. Ama alaba, cardanchillo eder cantaria miruac ilten icusiatic.
2. Zaldiarroa, ta asto apala.
3. Atso ezain, burua eder eguiten evana. — D<sup>n</sup>Juan Antonio Moguel-ena.
4. Azuarra, ta luki minartua.
5. Ugazab'andra eragui-guilleguia, eta nescatilla otsein ollar-iltzallac.
6. Andra alarguna ta ollo arrantzaguillea. — Moguel-ena.
7. Arrantzalle uste utsetacoac.
8. Erbi bicitzeaz gogaituac ta ugarashioac.
9. Agure gogaitua, ta balbe charra.
10. Asta, iru yabe, bata baño bestea deungagoac izana.
11. Guizon escu-eutsi lanez betea ta adiskide esan onecoa.
12. Ollo soñularia ta lapurrac. — Moguel-ena.
13. Aceri mats-gurea.
14. Catu ariman bildur-eguiac.
13. Otso gaishotua ta ardi asco-yakina. — Moguel-ena.
16. Madril-go itsu barri zabaltzallac.
17. Osaguilla, gaishoa il ezkererremedioa esan evana.
18. Guizon parasta ta guizon yakina.
19. Aztu'besteen gaucen igarlaria, ta bertcetan itsua.
20. Catu padarra ta eiztariac. — Moguel-ena.
22. Ezcougueia ta emazteguei biak, gaztea ta zar-nastea. — Salaberri-rena.
22. Bela gaiskin chikia, otso gaiskillia andia ta guizona. — Moguel-ena.
00. Ipuin berbera gauza batzuetan cerbait bestera eguinda.
23. Asto nekea amaitua ta ila, ta zaldi biotz gogorra.
24. Leoi-artz ausca indarguetuac, ta lukia.
23. Catamotz uzu caiolatan, ta chacur etse-yagola ascatur. — Moguel-ena.
26. Ollar bi pelascatuac ta gudatuac, geiagio eguina tu azpiratua.
27. Basauntz mats orri yalea.
28. Basaurde garaun-bagacoa. — Moguel-ena.
29. Il baten gauco anca-aizteen negarrac, ta erostarienac.

30. Aume ondo acia ta otso galtzallea. — Moguel-ena.  
 31. Chacur-catu adiskideak. — Moguel-ena.  
 32. Arrantzallea ta chibi bacarra. — Moguel-ena.  
 33. Ilteco egoan gurasoaren burubide ona, ta ume cintzoro bear-guillac.  
 34. Isopo agurea yolastuten ta olguetan.  
 35. garritzat (*sic*). Peni achurlari alperragaz Yoane necazale cintzoaren arteco berbaicuntzea.  
 D<sup>a</sup> Maria Vicenta Antonia Moguel-ena.

---

NOTAS EN GRACIA DE LOS QUE NO ESTEN TAN DIESTROS  
 EN EL BASCUENCE (*sic*)

---

Anchinaco .... *yarechi-arren*, aunque lo hubiera conseguido.,  
*Martizdiazcarracaz*, con soldados esforzados. *Coldarturic*, acobandados.  
*Galtzarrai*, á los brazos. *Erruz*, con brio.  
*Ez evan autu*, no escogió.  
*Yarki*.  
*Atondurik*.  
*Asaba*, ascendientes.  
*Bètu* por *beetu*, abajar.  
*Lauburua*, la cruz, dicha asi de *lau* y *buru* por sus cuatros extremidades. Esta es segun el P. Larramendi en su Diccionario — verbo *Labaro* — la etimología en la palabra *Labarum*, al que dieson á veces el epíteto de *Cantabrum* y la que no han podido encontrar los que la han buscado en otras lenguas. Vease á Albano Butler, 14 de septiembre, a Berault. Historia eclesiast. lib. 6. n. 58. Zamacola, Hist. de las Nac. basc. t. I, epoc. 3, cap. 3.  
*Ishurten zan*, se derramaba.  
*Laua*, llano. *Emetu*, afemirar.  
*Motzac*, los que no saben bascuence. *Oñatzac*, pisadas. vestigios.  
*Bâ* por *bada*.

FIN